



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko irailaren 17a

104. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-24/LEY-00010. Nafarroako Gobernuaren zenbait departamentutan 358.282 euroko kreditu berezi bat emateko 2024ko aurrekontuaren kargura (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/MOC-00096. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa, konfiantza eta konpromisoa adierazten baitizkio Nafarroako Unibertsitate Publikoari. Cristina López Mañero andreak aurkeztu du (5. or.).

—11-24/MOC-00097. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berehala amaiarazi dezan hezkuntzaren esparruan adingabeak ideologikoki doktrinatzeko saio oro. María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkeztu du (6. or.).

—11-24/MOC-00098. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azter dezan bideragarria ote den Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileak prestatzea helduen giltzurruneko transplantateak egiteko. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (7. or.).

—11-24/MOC-00099. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lankidetzaren estuan jardun dadin Garraio Ministerioarekin eta Espainiako Gobernuarekin, bermatze aldera nazioarteko zabalera-ko abiadura handiko tren 2030a baino lehen iritsiko dela Iruñera. Nafarroako Alderdi Popularrak talde parlamentarioak aurkeztu du (9. or.).

—11-24/MOC-00100. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurriak har ditzan etxebizitza bat eskuratzea errazteko. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (10. or.).

—11-24/MOC-00101. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernuari eska diezaion AHTaren Nafarroako tartea lehenbailehen osatzeko eta bukatzeko beharrezkoak diren izapide guztiak bizkortzeko. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztu du (11. or.).

—11-24/MOC-00102. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aintzat har dezan Euskararen Nafar Kontseiluaren irailaren 12ko txostena. Eneka Maiz Ulaiar andreak aurkeztu du (12. or.).

- 11-24/MOC-00103. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azter dezan adimen artifiziala ezartzeko aukerarik ote dagoen itxaron-zerrendetako datuak hobeki tratatzeko eta hobetzeko. María Teresa Esporrín Las Heras andreak aurkeztu du (13. or.).
- 11-24/MOC-00029. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita % 100eko hobaria ezar dezan egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren eta ondare-eskualdaketen gaineko zergaren tributu-kuotan, Espainiako Gobernuak iragarri duen abal-lerroan aurreikusitako kasu guztietarako. Mozioa erretiratzea (14. or.).
- 11-24/MOC-00084. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusa adierazten baitie Gobernu-ko lehendakari Pedro Sánchezi nahiz bere gobernu osoari, separatismoaren pretentsioen aitzinean amore emateagatik eta amnistiaren legea onesteagatik. Mozioa erretiratzea (14. or.).
- 11-23/MOC-00054. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Donejakue Bideari buruzko Plan Integral berri bat taxutu dezan. Erabakiaren betetzeari buruzko erabakia (15. or.).
- 11-23/MOC-00062. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirolean egoera sexistei aurre egiteko laguntza-zerbitzua sor dezan. Erabakiaren betetzeari buruzko erabakia (15. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- PER20230062. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts, funtzionario-araubidekoak eta A mailakoak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko. Onartutako eta baztertutako izangaian behin betiko zerrenda (16. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-24/LEY-00010. Nafarroako Gobernuaren zenbait departamentutan 358.282 euroko kreditu berezi bat emateko 2024ko aurrekontuaren kargura

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 16an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2024ko irailaren 11n hartutako Erabakiaren bidez, 2024ko aurrekontuaren kargura Nafarroako Gobernuaren zenbait departamentutan 358.282 euroko kreditu berezi bat emateko foru-lege proiektu hau igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABA-KITZEN DA:

1. Aipatu foru-lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Gobernuaren zenbait departamentutan 358.282 euroko kreditu berezi bat emateko 2024ko aurrekontuaren kargura

ATARIKOA

Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuak; Lurralde Kohesiorako Departamentuak; Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko Departamentuak; Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak; eta Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak txostenak igorri dituzte, adieraziz 2024an zenbait gasturi aurre egiteko beharra dutela baina horietarako aurrekontu partida egokirik ez dagoela.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen paragrafoak ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin den gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada horretarako krediturik egon gabe, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditu bat emateko. Orobat, bigarren paragrafoan xedatzen du aparteko kreditua edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzen ahal dela, Parlamentuak zuzenketa onduz edo foru lege honen xedapenak direla eta berariaz onetsitako kredituetatik datozenak barne.

1. artikulua. Aparteko kreditu bat ematea.

358.282 euroko aparteko kreditua ematen da 2024ko aurrekontuaren kargura, Nafarroako Gobernuko departamentu batzuen beharrak finantzatzeko.

Kreditu hori aurrekontuko partida hauetan aplikatuko da:

AURREKONTUKO PARTIDA	ZENBATEKOA
031000 03100 4609 462103 SEM Iruñeko Udalarekiko hitzarmena, sarean lan egiteko ikuspegi dialogikoan oinarrituta	123.282
210002 21400 4609 922103 Toki erakundeentzako transf. Erronkari, Otsagabia, Garralda, Auritz, Erro, Aurizberri eta Luzaide ikastetxe publikoen funtzionamendu gastuak	120.000
820001 82500 7819 425211 Anizko energia-komunitaterako dirulaguntza	30.000
820001 82500 7609 425223 Arbeitzako Kontzejurako dirulaguntza energia-komunitateak sustatzeko	7.000
920005 93100 4819 231B59 Hitzarmena, erabateko inklusioarekin, "Inklusiorako eraldaketa digitala Nafarroan" proiekturako	38.000
A50000 A5000 7609 3361E9 Uharteko Udalerako transferentzia: entrenatzeko futbol zelaia egitea	40.000

2. artikulua. Aparteko kredituaren finantzaketa.

358.282 euroko aparteko kreditu hau honako partida hauetan erabilgarri dagoen kredituaren kargura finantzatuko da:

AURREKONTUKO PARTIDA	ZENBATEKOA
031000 03100 4609 462100 SEM Toki erakundeekiko hitzarmena, sarean lan egiteko ikuspegi dialogikoan oinarrituta	123.282
210002 21400 4809 922100 PIRIBIZI dirulaguntzak: Pirinioetan erronka demografikoari aurre egitea	120.000
820001 82500 7609 425219 (E) Baztanen, Anizko herrirako dirulaguntza energia-trantsizioko proiektu baterako	30.000
820001 82500 7609 425222 (E) Arbeitzako Kontzejurako dirulaguntza energia-komunitate bat sortzeko	7.000
920005 93100 7819 231B08 (E) Hitzarmena, erabateko inklusioarekin, "Inklusiorako eraldaketa digitala Nafarroan" proiekturako	38.000
A50000 A5000 7609 3361C9 (E) Uharteko Udalerako transferentzia: futbol 8ko zelaian soropil artifiziala jartzea	40.000

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00096. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes, konfiantza eta konpromisoa adierazten baitizkio Nafarroako Unibertsitate Publikoari

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes, konfiantza eta konpromisoa adierazten baitizkio Nafarroako Unibertsitate Publikoari.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP) funtsezko instituzioa da foru-erkidegoan. 1987an sortu zenetik, bere eskaintza akademikoa, ikaskopurua eta ikerketa-emaizak nabarmen hazi dira, halako moduan non sektoreko ranking nagusietan gora egin baitu. Era berean, NUPek zalan-tzarik gabe lagundu du Nafarroaren garapen

sozial eta ekonomikoan, eta gaur egun ezin hobeto uztartuta dago gure gizartean.

NUPen finantzaketaren zatirik handiena Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik urtero heldu diren diru-sarreretan oinarritzen da. Gaur egun, finantzaketarako urte anitzeko hitzarmen berri bat negoziatzen ari da, 2022-2024 aldirako sinatutakoa ordezteko.

2024-2025 ikasturtearen hasiera-ekitaldian, NUPko errektorea kezkatuta agertu zen instituzio akademikoak aurre egin behar dien erronkei behar bezala erantzuteko behar diren baliabideak ez edukitzeko arriskua dagoelako; izan ere, ikasle kopurua nabarmen handitu da, Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoa (LOSU) ezarri da eta laster Osasun Zientzien eraikin berria jarriko da martxan, besteak beste.

Errektorearen hitzak larriak direnez, eta orain heldu diren ekitaldietarako urte anitzeko finantzaketa-hitzarmena negoziatzen ari denez NUPen, eta laster 2025erako Nafarroako aurrekontu orokorrak onetsiko direnez, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoarekiko babes, konfiantza eta konpromisoa adierazten du, eta Nafarroako Gobernuari eskatzen dio NUPi behar adina baliabide ekonomiko eman diezazkiola, errektoreak 2024-2025 ikasturtearen hasiera-ekitaldian adierazitako erronkei aurre egin ahal izan diezaien.

Iruñean, 2024ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/MOC-00097. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita berehala amaiarazi dezan hezkuntzaren esparruan adingabeak ideologikoki doktrinatzeko saio oro

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita berehala amaiarazi dezan hezkuntzaren esparruan adingabeak ideologikoki doktrinatzeko saio oro.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikitako María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

2023ko urrian, Vox parlamentu-taldeak mozio bat erregistratu zuen ikasgeletako doktrinamenduarekin amaitzeko, bereziki testuliburuei eta hezkuntza-materialari erreparatuta. Zoritxarrez, ikusten dugu urtebete geroago arazo hori areagotu baino ez dela egin, eta gero eta ohikoagoa dela adingabeen xalotasuna eta familien eskubideak ikasgeletan urratzea.

Hezkuntzarako eskubidea giza duintasunari hertsiki lotutako eskubidea da, eta hainbat arauk babesten dute; horien artean, Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua nabarmentzen da. Gure Konstituzioak, hezkuntzarako eta irakaskuntza-askatasunerako eskubidea bermatzeaz gain, botere publikoei ezartzen die eskubide hori zaintzeko betebeharra; horretarako, "irakaskuntzaren programazio orokorrak baliatuko dira, kasuko sektore guztien benetako parte-hartzearekin eta ikas-

tetxeak sortuz". Aurrekoarekin estuki lotuta, gurasoek eskubidea dute seme-alabek jasotzen duten hezkuntza mota beren sinesmenen arabera aukeratzeko, eta hori gauzatzen da ikastetxeetan ideologiarik inposatzeko debeku konstituzionalaren bidez.

Botere publikoek zaindu behar dute espainiarrek doako hezkuntza, zorrotza eta kalitatezkoa, jaso ahal izan dezaten, gazteentzako benetako gizarte-igogailua izan dadin.

Gure ikasle askok eduki nabarmen ideologikoa aurkitzen dituzte beren curriculum-testuliburuetan, zerkusirik ez dutenak ezagutza zientifiko eta akademiko zorrotzarekin; halaber, gure historiari edo Espainiako errealitate sozial eta politikoa buruzko datu okerrak –edo zuzenean gezurrak– aurkitzen dituzte.

Bereziki larriak dira gure gazteak doktrinatu espainiarren arteko bizikidetzara hausteko ahalegin baimenduak. Gure betebeharra da salatzea eta Nafarroako Gobernuari eskatzea berehala, arduraz eta irmotasunez jardun dezan, ikasgeletan sustatutako doktrinamendu eta gizarte-liskar zeharo justifikatu gabe eta ez-legitimoari amaiera emateko.

Zentzuzkoa da botere publikoek hezkuntza-sisteman esku hartzea –batez ere, horren eraginkortasuna bermatzeko–, baina inoiz ez da ahaztu behar seme-alaben hezkuntzan zeregin nagusia gurasoei dagokiela, eta aktibismo ideologiko antiakademikoa ikasgeletatik eta testuliburuetatik kanpo mantenduta betiere.

Hori horrela, azaldukoaren babesean;

Bakarra. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du:

- Hezkuntza-esparruan adingabeen doktrinamendu ideologiko oro berehala amai dezan.

- Nafar guztiek hezkuntzarako sarbidea baldintza berdinetan izatea eragozten duten oztopoak kentzeko beharrezkoak diren lege-aldaketak susta ditzan, hezkuntzaren neutraltasun ideologikoa bermatuz.

- Gurasoek beren seme-alabentzat beraien sinesmenekin bat datorren heziketa erlijiosoa eta morala aukeratzeko duten eskubidea errespeta-

tzeko eta horrela Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua bermatzeko konpromiso argia har dezan.

- Beharrezkoak diren neurriak har ditzan hezkuntza-curriculumen berrikusketa sustatzeko eta adingabeen xalotasunari eragin diezaiokeen edozein doktrinatzeko edo eduki kaltegarria jasotzen duten testuliburuak eta hezkuntza-materiala berehala erretiratzeko, horrek familiei kalte ekonomikorik ekarri gabe.

- Gurasoek beren seme-alabek ikasgelan jaso dezaketen edozein eduki afektibo-sexual edo ideologiko alde aurretik ezagutzen eta onartzen dutela berma dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-24/MOC-00098. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita azter dezan bideragarria ote den Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileak prestatzea helduen giltzurruneko transplanteak egiteko

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita azter dezan bideragarria ote den Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileak prestatzea helduen giltzurruneko transplanteak egiteko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Organoak erazteari eta transplantatzeari buruzko urriaren 27ko 30/1979 Legearen 3. artikulua honako hau jasotzen du: Osasun eta Gizarte

Segurantzako Ministerioak berariaz baimenduko ditu giza organoak erazteko osasun-zentroak. Baimen horrek erabakiko du nori dagokion esku-hartze bakoitzerako adostasuna ematea.

Honela dio 7. artikulua:

Bat. Autonomia erkidego eta nazio mailako erakundeak erazteaz erraztuko da, eta pertsona hilengandik lortutako transplanterako organoak trukatzeko eta azkar zirkulatzeko ahalbidetzen duten nazioarteko erakundeekin lankidetzan jardunen da, hartzailerik egokiena aurkitzeko.

Bi. Osasun eta Gizarte Segurantzako Ministerioak arau erregulatzailerak emango ditu beren izaeragatik kontserbazio-modalitate hori ahalbidetzen duten organoen «bankuen» funtzionamenduari eta kontrolari buruz. «Banku» horiek ez dute, inolaz ere, irabazi-asmorik izanen.

Eta lehenengo xedapen gehigarrian honako hau dio: Gobernuak lege honetan xedatutakoa garatu beharko du erregelamendu bidez, eta, bereziki:

- a) Lege honetan aipatzen diren langile, zerbitzu eta osasun-zentroek aitortuak eta beren eginkizunetan egiaztatuak izateko bete behar dituzten baldintzak eta betekizunak;

Ondoren onetsitako arauak egiaztapen-prozedura garatu dute.

Hala, Osasuneko Estatu idazkariaren 1980ko ekainaren 27ko Ebazpenak, Organoen Transplantatzeari buruzko Legearen Erregelamendua garatzen duenak, honako hau adierazten du organoen

transplante-programak hasteko jarraitu beharreko prozedurei dagokienez:

– 5. artikulua: Organoen transplanteak edo ehunen inplanteak baldintza hauek betetzen dituzten ospitaleetan bakarrik egin ahal izanen dira:

a) Zerbitzu hauetakoren bat izatea: barne-medikuntza, nefrologia, neurologia edo neurokirurgia, kirurgia orokorra, anestesia, urologia, zainketa intentsiboetako unitatea, odol-bankua, hematologiako, biokimika klinikoko eta mikrobiologiako laborategi orokorrak, immunologia propioko edo afiliatuko laborategia eta erradiologia.

b) Egunean hogeita lau orduko zaintza-txandak –presentzialak nahiz deien bidezkoak–, kasuan kasuko zerbitzu edo unitateenak.

c) Transplantean esperientzia duen unitate kirurgikoa.

d) Hemodialisia duen nefrologia-unitatea.

e) Isolamendu-unitate esterilak.

Aldez aurretik egin beharreko egiaztapenak egin ondoren, Osasun eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak, Osasunerako Estatu Idazkaritzaren bitartez, eskatutako baimena eman ahal izanen du, eta baimen horrek 4 urteko aldi berriztagarriak izango ditu.

1723/2012 Errege Dekretua, abenduaren 28koa, Transplanterako giza organoak lortu, klinikoki erabili eta lurraldeen artean koordinatzeko jarduerak arautzen dituen abenduaren 28ko

1723/2012 Errege Dekretuak, berriz, hauxe dio II. eranskinean:

Organoak transplantatzeko zentroak baimentzeko betekizun espezifikoak

1. Emaile hilen organoaren transplante-zentroak baimentzeko baldintza espezifikoak honako hauek izanen dira:

a) Giltzurrun-transplanteak egiteko: nefrologia-ko, urologiako eta/edo kirurgia orokorreko eta digestio-kirurgiako eta/edo kirurgia baskularreko unitatea edukitzea, esperientziadun behar adina langile kualifikaturekin, bermatzeko transplante horiek behar bezala egiten direla eta paziente horien balizko konplikazioen jarraipen, diagnostiko eta tratamendu egokia egiten dela.

Hori dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen ditu azter dezan ea bideragarria ote den prestakuntza eta kualifikazio profesionaleko programa bat garatzea, Osasun-sistema Publikoko gainontzeko zerbitzuekiko akordioen bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileei ahalbidetuko diena giltzurrun-transplanteak modu progresiboan egin ahal izatea pertsona helduen kasuan, bai eta prestazio berri horietarako osasun-instalazioak egokitzea ere.

Iruñean, 2024ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

11-24/MOC-00099. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premia-tzen baita lankidetzan estuan jardun dadin Garraio Ministerioarekin eta Espainiako Gobernuarekin, bermatze aldera nazioarteko zabalera-ko abiadura handiko trenen 2030a baino lehen iritsiko dela Iruñera

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premia-tzen baita lankidetzan estuan jardun dadin Garraio Ministerioarekin eta Espainiako Gobernuarekin, bermatze aldera nazioarteko zabalera-ko abiadura handiko trenen 2030a baino lehen iritsiko dela Iruñera.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, irailaren 19ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Abiadura Handiko Trenen funtsezko azpiegitura bat da Nafarroaren lehiakortasuna eta ongizatea hobetzeko; izan ere, Espainiako eta Europako ardatz ekonomiko eta sozial nagusiekiko lotura azkar eta efizientea eskaintzen du. Proiektua funtsezkoa da lurralde garapenerako ez ezik inbertsioa erakartzeko, enplegua sortzeko eta zenbait sektore –turismoa eta industria, kasu– bultzatzeko ere.

Orain dela gutxi, Garraioetako ministro Óscar Puente Diputatuen Kongresuan iragarri du AHTa 2030ean iritsiko dela Iruñera, eta konpromiso hori betetzeko eragozpenik ez dagoela ziurtatu du. Orobat adierazi zuen Campanastik Castejónera bitarteko zatia 2026an egonen dela amaituta,

Europako suspertze funtsetatik heldu den finantzaketari esker, neurri handi batean. Hala ere, korridorearen garapen osoak erronka handiak ditu Nafarroan. Gaur egun, obren % 90 gauzatzeko daude, eta Erkidegoak Espainiako abiadura handiko sarean inbertitutako guztizkoaren % 0,4 soilik jaso du; kopuru hori beste erregio batzuek jasotakoa baino askoz ere txikiagoa da.

Egoera horrek administrazio-prozesuak bizkortzeko eta inbertsioa handitzeko premia dagoela erakusten du, Nafarroa trenbide-azpiegiturari dagokionez atzean geratuko ez dela bermatzeko. Adituek ohartarazi dutenez, finantzaketa-erritmoa urtean 350 milioi euro ingurura igotzen ez bada, proiektua 2030etik harago joan liteke, baita 2035era bitarte ere.

Horregatik guztiagatik, eta AHTak Nafarroaren etorkizun ekonomiko eta sozialerako duen garrantzia onartuta, ezinbestekoa da Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuak proiektu estrategiko hori azkar burutzearekin duten konpromisoa indartzea. Nafarroa eta Espainiako gainerako herrialdeak eta Europa AHTaren bidez lotzea aukera paregabea da garapen jasangarria bultzatzeko, mugikortasuna hobetzeko eta gure erkidegoa Europako garraio-sarearen barruan posizio pribilegiatu batean kokatzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak:

1. Nafarroako Gobernuaren premia-tzen baita lankidetzan estuan jardun dadin Garraio Ministerioarekin eta Espainiako Gobernuarekin, bermatze aldera nazioarteko zabalera-ko abiadura handiko trenen 2030a baino lehen iritsiko dela Iruñera, Espainiako Gobernuaren konpromisoei jarraikiz.

2. Espainiako Gobernuari eskatzen dio nabarmen handitzeko AHTaren Nafarroako zatirako inbertsioak, halako moduan non finantzaketa-eritimo egokia lortuko dela ziurtatuko baita, adituek adierazitakoa bezalakoa, urtean 350 milioi euro beharko lirakeelako.

3. Obren egutegi argi eta zehatza exijitzen du, Nafarroan egiteko dagoen zatia eta Ezkioetik Euskal Y-arekin lotzeko modua barne hartzen dituen.

4. Epeak aktiboki gainbegiratzea eta obrei esleitutako Europako funtsak inbertitzea eskatzen du, bai eta Nafarroak proiektua osatzeko proportzio egokia jasotzen duela ziurtatzea ere.

Iruñean, 2024ko irailaren 12an

Eleduna: Javier García Jiménez

11-24/MOC-00100. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita neurriak har ditzan etxebizitza bat eskuratzea errazteko

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita neurriak har ditzan etxebizitza bat eskuratzea errazteko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentariaren elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 219. artikuluan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du irailaren 19ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Datuak latz-latzak dira. Eurostat-en arabera, Espainia Europar Batasuneko laugarren herrialdea da emantzipazio berankorren batez beste adinari dagokionez (30,3 urte); izan ere, Espainiaren aurretik soilik daude Kroazia (33,4 urte), Eslovakia (30,8 urte) eta Grezia (30,7 urte), eta Bulgariaren pare dago. Eta azken urteotako joera txarra da inondik ere.

Nafarroan, egoera jasanezina zen lehen ere, eta esponentzialki okertu da gaur egun bizi dugun larrialdi ekonomiko eta sozialaren eraginez. Familiaren eroshalmenaren galera drastikoa, interes-tasaren igoera eta etengabeko inflazioa dira, etxebizitzaren prezio ezin ordainduzkoarekin batera, gazte-belaunaldi osoak biziraupenaren estolda-zulora zokortzen ari den gizarte- nahiz belaunaldi-kolapsoaren osagaiak. Behartsuen belaunaldi oso bat, non kimera bat besterik ez baita norberaren auzoan edo herrian geratzeko eta aurrera egiteko.

Voxen ez dugu utziko traba fiskal edo burokratikoa bakar batek ere eragozteko familia eta gazte espainiarren ametsak eta beharizanak. Bermatu beharra dago espainiar guztiek izatea benetako etxe bat, non euren bizi-proiektua ziurgabetasunik gabe garatu ahal izanzen baitute. Botere publikoek erraztu eta egingarri egin behar dute etxebizitza baldintza duin eta egokietan eskuratzea, batez ere premia handiena duten espainiarren kasuan.

Hori dela-eta, Vox Nafarroa foru parlamentariaren elkarteari honako erabaki-proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

- Lehenengo etxebizitza erosteko zenbatekotik BEZa kentzea.
- PFEZean ohiko etxebizitzan inbertitzeagatikoko enkaria berreskuratzea.
- Ondare-eskualdaketen gaineko zergan % 100eko salbuespena ezartzea.
- Etxebizitza-kontua berriro ezartzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-24/MOC-00101. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita Espainiako Gobernuari eska diezaion AHTaren Nafarroako tartea lehenbailehen osatzeko eta bukatzeko beharrezkoak diren izapi- de guztiak bizkortzeko

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Espainiako Gobernuari eska diezaion AHTaren Nafarroako tartea lehenbailehen osatzeko eta bukatzeko beharrezkoak diren izapi-de guztiak bizkortzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritako-aren babesean, Espainiako Gobernua premia-tzeko honako mozio hau aurkezten du.

Zioen azalpena

Nafarroako Alderdi Sozialistak hasieratik aldeztu du Nafarroan Prestazio Handiko Trena, eta beti egin du lan azpiegitura hori lortzeko bide-an aurrera egiteko.

Gure ustez, Nafarroa osorako lorpen bat da prestazio handiko komunikazio-sare horrek Nafarroa zeharkatzea eta Atlantikoko korridorearen

nazioarteko sarearekin eta, besteak beste, Castejón eta Zaragoza lotzen dituen sarearekin konektatzea.

Gure ustez, azpiegitura hori garatzea eta aurrera egitea funtsezkoa da Nafarroako herritarrentzat, bai eta garapen industrial eta ekonomikoarentzat ere, bereziki gure erkidegoko sektore garrantzitsuentzat.

Obra horri esker, gainera, ibilgailu astunen kopurua murriztu dezakegu Nafarroako errepideetan, eta, hortaz, nabarmen hobetu ingurumena.

Azken batean, uste dugu azpiegitura hori funtsezkoa dela Nafarroa garatzeko, eta, horretarako, beharrezkoa dela Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua eskutik joatea eta lan koordinatua egitea Nafarroako tartean AHT lehenbailehen eraikitzeko, eskakizun eta betekizun legal, tekniko eta ekonomiko guztiak betez.

Azaldutako guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Espainiako Gobernuari eskatzen diogu behar diren izapide guztiak bizkortzen jarrai dezan, berme guztiak mantenduz, Prestazio Handiko Trena ahalik eta lasterren osatu eta amai dadin, Nafarroan, eta, bereziki, Zaragoza eta Castejón lotzen dituen tartea.

2. Espainiako Gobernuaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko elkarrizketa arin eta eraikitzailea mantentzeko eskatzen dugu, bi administrazioak oso konprometituta dauden lan baten garapenean, zein bere ardurak eta eskumenak baliatuta.

Iruñean, 2024ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

11-24/MOC-00102. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita aintzat har dezan Euskararen Nafar Kontseiluaren irailaren 12ko txostena

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita aintzat har dezan Euskararen Nafar Kontseiluaren irailaren 12ko txostena.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Eneka Maiz Ulaiar EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Joan den irailaren 12ko Euskararen Nafar Kontseiluak kontrako txostena egin dio Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak proposatu duen foru dekretuaren testuari, zeinak euskararen erabilera arautzen baitu Nafarroako administrazio publikoetan.

Dekretu horren aurrekaria 2017ko azaroaren 15ean onetsi zen 103/2017 Foru Dekretua da, zeinaren bidez euskararen erabilera arautzen baitzen Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde autonomoetan eta mendeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan. Foru dekretu horren xedea zen Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen I. titulua garatzea (Euskararen erabilera arrunta eta ofiziala Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoetan).

103/2017 Foru Dekretuak, ordea, administrazioarekiko auzibidean errekurtsioa jaso zuen, eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 216/2019,

217/2019 eta 218/2019 epaiak eman zituen (528/2017, 42/2018 eta 497/2017 administrazioarekiko auzi-errekurtsioak), eta hainbat artikulua indargabetuta geratu ziren.

Horren ondorioz, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak beste foru dekretu proposamen bat egin zuen, zeinari Nafarroako Kontseiluak kontrako irizpena eman baitzion (otsailaren 21eko 4/2024 irizpenean).

Azkenik, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak azken testu bat proposatu du, zeina, besteak beste, irailaren 12an Euskararen Nafar Kontseilura eraman baita, txostena egin dezan. Euskararen Nafar Kontseiluak kontrako txostena egin du.

Euskararen Nafar Kontseilua Nafarroako Gobernuaren aholkularitza- eta kontsulta-organo goren da, euskararen plangintzari eta sustapenari dagokionez.

Beraz, ezinbestekoa da Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuak eta Nafarroako Gobernuak Euskararen Nafar Kontseiluko adituen iritzia kontuan hartzea.

Erabaki-proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du, Nafarroako administrazio publikoetan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko merezimenduen balorazioa arautzen duen foru dekretu proiektuari dagokionez, irailaren 12an Euskararen Nafar Kontseiluak egindako txostena kontuan har dezan, organo hori hizkuntz politikan Nafarroako Gobernuak duen organo aholku-emalere goren baita.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du ez dezan foru dekretu proposamen hori onetsi, eta Nafarroako Administrazioan euskararen normalizazioa eta nafar guztion hizkuntz eskubideak benetan bermatuko dituen foru dekretua gara dezan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du 303/2019 Foru Dekretuaren 25. artikulua alda dezan, Euskararen Nafar Kontseiluaren irizpenak lotesleak izan daitezen.

Iruñean, 2024 irailaren 12an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-24/MOC-00103. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita azter dezan adimen artifiziala ezartzeko aukerarik ote dago- en itxaron-zerrendetako datuak hobeki tratatzeko eta hobetzeko

MARÍA TERESA ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Esporrín Las Heras andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azter dezan adimen artifiziala ezartzeko aukerarik ote dagoen itxaron-zerrendetako datuak hobeki tratatzeko eta hobetzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du Osasun Batzordean eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan adimen artifiziala ezartzeko aukerarik ote dagoen itxaron-zerrendetako datuak hobeki tratatzeko eta hobetzeko.

Zioen azalpena

Osasun-sistemara iristeko zailtasunak eta itxaron-zerrendak dira herritarrek gaur egun osasun-laguntzari dagokionez jasaten duten arazo nagusietako bat. Larrialdien artatzea eta tratamendua ederki bideratuta dagoen arren, programatutako arretak zailtasun gehiago izan ditzake, itxaroten egon beharreko denborari dagokionez.

Teknologia berrien garapena –bai gaur egun ezagutzen direnena, bai epe labur, ertain eta luzean garatzen ahal direnena– oso lagungarria izan daiteke arazo horiek arintzeko.

Adimen artifiziala (AA) oso lagungarria izan daiteke alderdi prediktiboan, ez diagnostikoan, ezta tratamenduan ere.

Jada eskuragarri dagoen datu kopuru handi handian oinarritutako antolaketa-sistema baten bidez, hitzorduak ordenatzen ahalko lirateke, gaitzaren arabera ez ezik, osasun-sistemaren baliabideen errentagarritasun- eta aprobetxamenduhelburu argiarekin ere.

AAk populazio-azterketak egiten ahalko lituzke, pazienteen historiak aztertu, urtarokotasunari lotutako gaixotasunak aurreikusi, hala nola neguko arnas birusak, udaberriko alergiak, udako intoxicazio gastrointestinalak, etab.

Jakina, lan horiek guztiak batzorde etikoen babesarekin eta AAren Europako Legea errespetatuz eginen lirateke.

Horregatik guztiagatik, uste dugu merezi duela teknologia berri horiek ezartzeko aukera baloratzea.

Azaldutako guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Gobernua premiatzen dugu, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bidez dituen baliabideak baliatuz, azter dezan adimen artifiziala ezartzeko aukerarik ote dagoen itxaron-zerrendetako datuak hobeki tratatzeko eta hobetzeko.

Iruñean, 2024ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: María Teresa Esporrín Las Heras

11-24/MOC-00029. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita % 100eko hobaria ezar dezan egintza juridiko dokumenta-tuen gaineko zergaren eta ondare-eskualdaketen gaineko zergaren tri-butu-kuotan, Espainiako Gobernuak iragarri duen abal-lerroan aurreikusitako kasu guztietarako

MOZIOA ERRETIRATZEA

2024ko irailaren 16an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da % 100eko hobaria ezar dezan egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren eta ondare-eskualdaketen gaineko zergaren tributu-kuotan,

Espainiako Gobernuak iragarri duen abal-lerroan aurreikusitako kasu guztietarako. Mozioa 2024ko otsailaren 23ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00084. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusa adierazten baitie Gobernuko lehendakari Pedro Sánchezi nahiz bere gobernu osoari, separatismoaren pretentsioen aitzinean amore emateagatik eta amnistiaren legea onesteagatik

MOZIOA ERRETIRATZEA

2024ko irailaren 16an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusa adierazten die Gobernuko lehendakari Pedro Sánchezi nahiz bere gobernu osoari, separatismoaren

pretentsioen aitzinean amore emateagatik eta amnistiaren legea onesteagatik. Mozioa 2024ko ekainaren 11ko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/MOC-00054. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Donejakue Bideari buruzko Plan Integral berri bat taxutu dezan

ERABAKIAREN BETETZEARI BURUZKO ERABAKIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125. artikulua ezarritakoa betez, honako erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da:

"Kultura, Kirol eta Turismo Batzordearen ustez Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak bete egin du Nafarroako Parla-

mentuko Osoko Bilkurak 2023ko azaroaren 2an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Donejakue Bideari buruzko Plan Integral berri bat taxutu dezan".

Iruñean, 2024ko irailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/MOC-00062. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirolean egoera sexistei aurre egiteko laguntza-zerbitzua sor dezan

ERABAKIAREN BETETZEARI BURUZKO ERABAKIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125. artikulua ezarritakoa betez, honako erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da:

"Kultura, Kirol eta Turismo Batzordearen ustez Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak bete egin du Nafarroako Parla-

mentuko Osoko Bilkurak 2023ko azaroaren 16an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirolean egoera sexistei aurre egiteko laguntza-zerbitzua sor dezan".

Iruñean, 2024ko irailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

PER20230062. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts, funtzionario-araubidekoak eta A mailakoak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko

Onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda

94/2024 Ebazpena, irailaren 16koa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariarena, zeinaren bidez behin betikotzat jotzen baita aipatu prozeduran onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda eta kalifikazio-epaimahaiaren behin betiko osaera onesten baita.

2023ko abenduaren 14ko 258. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako deialdiak –alegia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts, funtzionario-araubidekoak eta A mailakoak, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoak– 5. eta 6. oinarrietan ezarritakoarekin bat, honako hau EBATZI DUT:

1. Behin betikotzat jotzea prozeduran onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendak, zeinak Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren otsailaren 13ko 22/2024ko Ebazpenaren bidez onetsi eta 2024ko otsailaren 16ko 22. NPAOn argitaratu baitziren.

2. Hauek izanen dira deialdi honetako epaimahai kalifikatzaileko kideak:

Epaimahaiburua: Unai Hualde Iglesias jauna, Nafarroako Parlamentuko lehendakaria.

Ordezkoa: Ainhoa Unzu Garate andrea, Nafarroako Parlamentuko lehen lehendakariordea.

Epaimahaikidea: Andoni Iturbe March jauna, Eusko Legebiltzarreko legelari nagusia.

Ordezkoa: Jorge Apellániz Barrio jauna, Errioxako Parlamentuko legelari nagusia

Epaimahaikidea: Carmen Agüeras Angulo andrea, Aragoiko Gorteetako legelaria.

Ordezkoa: Olga Herraiz Serrano andrea, Aragoiko Gorteetako legelaria.

Epaimahaikidea: Miguel Ángel Laurenz Itoiz jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

Ordezkoa: Josetxo Martínez Itoiz jauna, Nafarroako Parlamentuko Prentsako atalburua.

Idazkaria: Silvia Doménech Alegre andrea, Nafarroako Parlamentuko legelari nagusia.

Ordezkoa: Isabel Cañas Palacios andrea, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

3. Agintzea ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuaren webgunean argitara dadin.

Iruñean, 2024ko irailaren 16an

Lehendakaria Unai Hualde Iglesias